

GAZTELEREA GEURE GURARIZ?

Guztioi arrigarri gertatu jaku I Juan Karlos España'ko erregearen esaldia: "Gaztelereak beti jokatu dau gogo onez eta iñori ez jako ezarri nai ez dauala".

Jakiña da, erregeen itzaldiak iñok idatziak izaten dirala, baiña bai idatzi ebanak eta bai irakurri dauan erregeak berak zurtasunaren urritasuna agertu dabe. Nok sinistu-azo guri ezarri dauskuen gaztelerea geuk nai dogulako eta geuk eskatuta ezarri jakula?

Esaldi ori oso mingorra izan da, idazki onetan asalduko dogun lez.

Aldi baten liburuetan eta illerrian euskeraz idatzi-ta egozan izenak be kendu egin ebezan eta gure bideetako izenak, erriak euskeraz esaten izan dauzan izenak, beti erderaz ipiñi dauskuez, oraintsura arte, ainbat urtetan ez dauskue baimenik emon ez irratian berba egiteko eta ez aldizkariak eta liburuak euskeraz argitaratzeko, gure eskoletan irakasle erdeldunak ipiñi dauskuez, España'ko eskalafoiari jarraituz, gure Erdi-Maillako eta Goi-Maillako Ikas-tetxeetan ez dauskue itzi euskeraz berba egiten. Itz

barririk eskatu, arek euren izkuntzakaz pozik ego-zan eta bakean iztea zan egokiena. Baiña jenozi-dioak egin ziran eta bertakoa dana zapuztu. Ori orre-lan da eta orrelan dala onartu artean beste toki batzutan be jenozi-dioak egingo dabez.

Iñok buruz eta oiñarri barik diñodala ori esa ez dagian, ona emen neure oarkera edo esperientzia: Euskalerrian eta erderarik ez ekien gurasoakandik jaioa ta giro orretan azia, euskera utsa nekiala, erri-ko eskolara joan nintzanean, ez neban berba bat be euskeraz entzun. Dana erdera utsean. Eta apur bat erderea ikasi eta goragoko mailletara ikasten joan nintzanean, barriro, dana erderaz, berba bat be ez euskeraz. Gero erri -aurrean berba egin bearra etorri zanean, baimena eskatu gendun gure izkuntza ikas-teko ta obetzeko, eta au izan zan erantzuna: "Zuek ikasi euskerea, baiña isillean, baimen barik, baime-nik ezin geinke emon".

Eta orreik orrelan, non aurpegira botaten daus-kuen: "Erderaz berba egitera ez zaitue iñok beartu, zeuen borondatez sartu da gaztelerea zuen artera". Eta nok esa dau ori? Erregeak berak! ■

ZUGAZTIAK DIRA GIZAKIAI EGIN-
DAKO EMOITZIK ONENA

ZIZERON

OLAZAR'tar MARTIN'ek

baten esateko, alegin guztia egin dabe euskerea ilte-ko eta erderea gure etxeetara, errietara eta gizartera sartzeko eta orain nasai-nasai diñosku erregeak gaz-telerea beti zabaldu dala borondatez. Eta nik ain maite dodan, Lazaro Carreter'ek be, au esan dau irribarrez: "erregeak beti dauko errazoa".

Oker-esan oneri azalpen bat be emon dautsoe: Erregeak une orretan gogoan eukana ez zala Euska-lerri'ko ta Kataluña'ko arazoa, bere buruan Ego-Ameriketako gaztelerea egoala.

Ez da ori be erantzuna. Lenengo, Euskaldunak aitzuta ez diralako euki bear eurak iraintzen dira-nean eta gero Ameriketatik iñok ez ebalako izkuntza



ALDIZKARI ONEK
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU